

IRISGARRITASUNeko TERMINOLOGIA

Adimen-urritasuna

UNE-ISO 21542

Pertsona baten ohiko garapen kognitiboa baino erritmo motelagoa, edo prozesu kognitiboak ohikoa baino motelagoak izaten hasten direnean, adimenaren potentzial global murriztuarekin lotuta dagoenean.

Antropometria

68/2000 Dekretua, apirilaren 11koa

Gorputz-dimentsioak zehazki neurtzea eta gizabanakoen arteko aldakortasuna eta denboran izan duen eboluzioa aztertzea helburu duen diziplina da.

Aparakaleku irisgarria

VIV/561/2010 Agindua, otsailaren 1ekoa

68/2000 Dekretua, apirilaren 11koa

**1544/2007 Errege Dekretua, azaroaren 23koa
(garraioa)**

EKT -SUA 9

Hiriko jarduera-gune nagusiek mugikortasun murriztuko pertsoneri gordetako eta diseinatutako aparkalekuak izan beharko dituzte. Berrogei aparkaleku edo zatiki bakoitzeko bat erreserbatuko da gutxienez, eta artikulu honetan xedatutako baldintzak bete beharko ditu, egoiliarrentzako eta lantokietako aparkalekuak denak direla.

Eraikuntzarik gabeko bide edo espazioetan kokatutako ibilgailuak aparkatzeko eremu guztietan, 40 plazako edo zatikiko gutxienez plaza bat egongo da etengabe erreserbatuta mugikortasun urria duten pertsonak garraiatzen dituzten ibilgailuentzat.

Aparkalekuetan, beharrezkoa den plaza kopurua erreserbatu beharko da desgaitasun iraunkorra duten pertsonak garraiatzeko ibilgailuentzat, eta aparkaleku horiek kasuan kasuko gutxieneko neurriak izan beharko dituzte; plaza horiek itsas instalazioetara eta erabilera publikoetara xedaturiko beste instalazio batzuetara iristeko oinezkoentzako ibilbideetatik hurbil kokatuko dira.

Honako baldintza hauek bete beharko ditu:
 Aparkalekura sartzeko oinezkoen sarbidetik hurbil dago, eta harekin ibilbide irisgarri baten bitartez komunikatuta.
 Hurbiltzeko eta tokialdatzeko eremu erantsi bat du; bateriako aparkamendua bada, alboan, $\geq 1,20$ m zabalekoa eta ondoz ondoko bi plaza har ditzakeena, eta luzetarako aparkamendua bada, atzealdean, $\geq 3,00$ m luzekoa.

Arkitektura-oztopoak

68/2000 Dekretua, apirilaren 11koa

Arkitektura-oztopoak, eraikinen barruan ezgaitasun-maila desberdinentzat agertzen diren eragozpenak dira.

Arrazoizko egokitzapenak			
1/2013 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 29koa	7/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa	117/2018 Dekretua, uztailaren 24koa EIT EAE	Desgaitasuna duten pertsonen eskubideen konbentzioa
<p>Desgaitasuna duten pertsonentzako beharrezkoak diren aldaketa eta egokitzapen fisiko, sozial eta jarrerakoak egitea da, karga handiegirik eragin gabe, irisgarritasuna eta parte-hartzea modu eraginkor eta praktikoan bermatzeko, eta ezgaitasuna duten pertsonen beren eskubideak gauzatzea bermatzeko, berdintasunezko egoeran.</p>	<p>Eraikin bat egokitzeko neurriak, irisgarritasun unibertsala modu eraginkor, seguru eta praktikoan ahalbidetzarren eta neurrigabeko kargarik eragin gabe. Karga bat neurrigabea den edo ez den erabakitzeke, honako faktore hauek izango dira kontuan: neurriaren kostuak, neurria ez hartzeak eragingo lituzkeen diskriminazio-faktoreak, praktikan jarri behar duen pertsonaren edo erakundearen egitura eta ezaugarriak, eta pertsona edo erakunde horiek finantzaketa ofiziala edo bestelako laguntzaren bat lortzeko dituzten aukerak. Jabetza horizontalaren araubidean eraturako eraikinetan, karga neurrigabetzat hartuko da, baldin eta, urtean jasanarazitako obren kostua, betiere eskuratzeko eskubidea izan lezaketen laguntza publikoak kenduta, gastuen ohiko hamabi hileko adinakoa baino handiagoa bada.</p>	<p>Eraikin bat egokitzeko neurriak, irisgarritasun unibertsala modu eraginkor, seguru eta praktikoan ahalbidetzarren eta neurrigabeko kargarik eragin gabe. Karga bat neurrigabea den edo ez den erabakitzeke, honako faktore hauek izango dira kontuan: neurriaren kostuak, neurria ez hartzeak eragingo lituzkeen diskriminazio-faktoreak, praktikan jarri behar duen pertsonaren edo erakundearen egitura eta ezaugarriak, eta pertsona edo erakunde horiek finantzaketa ofiziala edo bestelako laguntzaren bat lortzeko dituzten aukerak. Jabetza horizontalaren araubidean eraturako eraikinetan, obren kostua —finantza-gastuak barne, hala badagokio— hainbat urtetan jasanarazi ahal izango da. Karga neurrigabetzat hartuko da, baldin eta, ekitaldi bakoitzari dagokion urteko kostua, betiere eskuratzeko eskubidea izan lezaketen laguntza publikoak kenduta, gastu arrunten ohiko hamabi hileko adinakoa baino handiagoa bada. Arrazoizko doikuntzak kalkulatu ahal izateko, egokitzapen-neurriak diseinatzean apirilaren 11ko 68/2000 Dekretuan —hiri-inguruneen, espazio publikoen, eraikinen, eta informazio eta komunikazioko sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzko arau teknikoak onartzen dituen— bildutako praktikotasun-baldintzak bete beharko dira gutxienez.</p>	<p>Kasuan kasu, beharrezko eta egoki diren moldaketak eta egokitzapenak dira, gehiegizkoa edo bidegabea den zamarik ezartzen ez dutenak, gutxitasuna duten pertsonen giza eskubide eta oinarriko askatasun guztiak gainerakoek aukera berdinekin gozatuko edo gauzatuko dituztela bermatzeko.</p>
Arreta emateko gune irisgarria			
EKT -SUA 9			
<p>Jendeari arreta emateko guneak dira (adibidez: leihatilak, jendearentzako salmenta txarteldegia, informazio-erakusmahaiak, eta abar).</p>			

Aukera-berdintasuna	
1/2013 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 29koa	26/2011 Legea, abuztuaren 1ekoa
<p>Desgaitasunen batean oinarrituriko bereizkeriarik ez egotea, ez zuzeneko, ez zeharkakoa, ezin arlotan –politikoa, ekonomikoa, soziala, lanekoa, kulturala, zibila, etab.–, eta desgaitasuna duen pertsonaren giza eskubideak eta funtsezko askatasunak baldintza berdinetan aintzat hartu eta erabiltzea oztopatu edo ezeztatze helburu duen bazterketa. Era berean, ekintza positiborako neurriak hartzea ere aukera-berdintasuntzat jotzen da.</p>	<p>Lege horren arabera, aukera-berdintasuna da desgaitasunen batean oinarrituriko bereizkeriarik ez egotea, ez zuzeneko, ez zeharkakoa, baita alor politiko, ekonomiko, sozial, kultural, zibil edo bestelakoan, desgaitasuna duen pertsonaren giza eskubideak eta funtsezko askatasunak kondizio beretan aintzat hartu eta erabiltzea oztopatu edo ezeztatze helburu duen bazterketa, bereizkeria edo murriztapen oro ere. Halaber, aukera-berdintasuna izango da desgaitasunen bat duen pertsonaren arazoak saihestu edo orekatzea zuzendutako ekintza positiboko neurriak hartzea, bizitza politikoa, ekonomikoa, kulturean eta gizartekoan erabateko parte-hartzea eduki ahal izan dezan.</p>
Bizimodu independentea	
1/2013 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 29koa	
<p>Ezintasuna duen pertsonak bere bizitzaren gainean aukerak hartzeko boterea gauzatzen duenean eta bere erkidegoko bizitzan aktiboki parte hartzen duenean, nortasuna aske garatzeko eskubideari jarraiki.</p>	
Deiak egiteko gune irisgarria	
EKT -SUA 9	
<p>Laguntza jasotzeko deiak egitea ahalbidetzen duten guneak dira, eta ondorengo baldintzak bete behar dituzte:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Eraikinerako sarrera nagusi irisgarri batekin komunikatuta daude, ibilbide irisgarri baten bidez. - Mekanismo irisgarri baten bidezko interkomunikazio-sistema bat dute, funtzioaren berri ematen duen errotulu batez hornitua. Sistema horrek entzumen-desgaitasunak dauzkaten pertsonetako bi noranzkoko komunikazioa ahalbidetzen du. 	
Desgaitasuna	
1/2013 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 29koa	68/2000 Dekretua, apirilaren 11koa
<p>Egoera bat da, urritasun aurrez ikusteko moduan iraunkorrak dituzten pertsonak oztopoak aurkitzen dituztenean sortzen dena, oztopo horiek mugatu edo eragotzi egiten dietelarik gizartean egiaz eta erabat parte hartu ahal izatea, gainerako baldintza berdinekin.</p>	<p>Jarduera bat gizaki batentzat normaltzat hartzen den marjinaren barruan edo moduan egiteko gaitasunaren murriztapen edo gabezia oro (urritasun batek eragindakoa) da ezgaitasuna. (OME, 1981).</p>
Desgaitasunen bat duten pertsonak	
26/2011 Legea, abuztuaren 1ekoa	1/2013 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 29koa
<p>Epe luzerako urritasun fisiko, adimenekoa, burukoa edo zentzumenetakoa dutenak, zeinak oztopo batzuekin elkarreraginez gero, oztopo hauek gizartean bete-betean eta eraginkorki, gainontzekoen kondizio beretan parte hartzea eragotzi baitezakete.</p>	<p>Desgaitasuna duten pertsonatzat hartzen dira betirako diruditen urritasun fisiko, adimenekoa, burukoa edo zentzumenetakoa dutenak, zeinak oztopo batzuekin elkarreraginez gero, oztopo hauek gizartean bete-betean eta eraginkorki, gainontzekoen kondizio beretan parte hartzea eragotzi baitezakete.</p>

Desgaitasunak eragindako diskriminazioa
Desgaitasuna duten pertsonen eskubideen konbentzioa
<p>Desgaitasunak eragindako diskriminazio gisa ulertuko da desgaitasunak eragindako bereizketa, bazterketa edo murrizketa oro, helburu edo ondorioztat giza eskubide eta oinarritzko askatasun guztiak, berdintasunez aitortzea nahiz betetzea galaraztea edo ukatzea duena, esparru politiko, ekonomiko, sozial, kultural, zibil nahiz beste edozeinetan. Diskriminazio mota guztiak hartzen ditu barne, arrazoizko egokitzapenak ukatzea ere bai.</p>
Desgaitasuna duten pertsonen ebakuzioa
SI3.9 - SS Suteetarako Segurtasunerako Oinarritzko Dokumentua
<p>1.- Etxebizitzarako bizitegi-erabilera duten eraikinetan (28 m-tik gorako ebakuzio-altuera dutenean), bizitegi-erabilera publikoa duten eraikinetan, eta administrazioko edo irakaskuntzako erabilera duten eraikinetan (14 m-tik gorako ebakuzio-altuera dutenean), merkataritzakoetan edo lehia publikorako erabiltzen direnetan (10 m-tik gorako ebakuzio-altuera dutenean), edo aparkaleku-erabilera duten solairuetan (1.500 m2 baino azalera handiagoa dutenean), okupazio nuluko gunea ez denean eta eraikinetik modu irisgarrian irteteko irteerarik ez dutenean, ordezko su-sektore batera igarotzeko aukera eman beharko da, solairutik irteteko irteera baten bidez, edo jarraian adierazten diren plazen kopururako egokia izango den babesleku baten bidez:</p> <ul style="list-style-type: none"> - 100 okupatzaileko edo zatikiko, gurpildun aukien erabiltzaileentzako toki bat, SS 3-2ari jarraiki; - Etxebizitza-erabilerarako kasuan izan ezik, 33 okupatzaileko edo zatikiko, bestelako mugikortasun murriztua daukaten pertsonentzako toki bat, SS 3-2ari jarraiki. <p>Garraio terminaletan, estatistika-base propioak erabili ahal izango dira pertsona desgaituentzat erreserbatu beharreko toki kopurua kalkulatzeko.</p> <p>2.- Sektoere alternatibo batera pasatzeko babeslekuak edo solairuko irteera irisgarri bat daukaten solairu guztiak ibilbide irisgarriren bat edukiko dute eremu irisgarri batean kokatutako ebakuzio-abiapuntutik aipatutako horietaraino.</p> <p>3.- Eraikinetik ateratzeko irteera daukaten solairu guztiak ibilbide irisgarriren bat edukiko dute eremu irisgarri batean kokatutako ebakuzio-abiapuntutik eraikinetik ateratzeko irteera irisgarri bateraino.</p> <p>4.- Eraikinetik irteteko solairuetan, desgaitasuna duten pertsonentzako larrialdi-irtenbide irisgarriak gaitu ahal izango dira, eraikinaren sarbide nagusiez gain.</p>
Desgaitasunaren arloko politiken zeharkakotasuna
1/2013 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 29koa
<p>Printzipio honen arabera, administrazio publikoek egiten dituzten jarduerak ez dira pertsona hauentzat soilik pentsatutako plan, programa eta berariazko ekintzetara mugatzen bakarrik, baizik eta barne hartzen dituzte jarduera publikoko edozein arlotako ekintza-politikak eta -lerroak, non kontuan hartzen diren ezintasuna duten pertsonen beharrak eta eskariak.</p>
Desorientazioa
UNE-ISO 21542
<p>Pertsona batek espazioari, denborari eta ingurune eraiki edo birtual baten testuinguruari dagokionez duen orientatzeko aldi baterako edo betirako ezintasuna.</p>

Diseinu unibertsala		
1/2013 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 29koa	3/2015 Legea, ekainaren 18koa, Etxebizitzarena.	Desgaitasuna duten pertsonen eskubideen konbentzioa
<p>Diseinu unibertsala edo guztientzako diseinua: inguruneak, prozesuak, ondasunak, produktuak, zerbitzuak, objektuak, bitartekoak, tresnak, programak eta gailuak pertsona guztiek erabili ahal izateko ahalik eta hedaturik handienez hasiera-hasieratik eta posible den guztietan sortzen eta proiektatzen den jardura da, egokitzapenik eta diseinu espezializaturik behar ez duena. Diseinu unibertsala edo pertsona guztientzako diseinuak ez ditu pertsona-talde jakinentzako laguntza-produktuak baztertuko, horiek beharra dutenean.</p>	<p>Ingurunea, eraikuntzak edota zerbitzuak diseinatzea, ahalik eta pertsona gehienek erabili ditzaten; desgaitasunak dituzten pertsonak ere bai, ahalik eta modurik autonomoenean, erabilera-berdintasunean. Diseinuak erabilerraza eta guztiontzat egokia izan behar du, norberak edozein gaitasun eta trebetasun duela ere; eta malgua, diseinu intuitiboduna, ulerterraza, akatsekiko malgua, ahalegin fisiko txikiarekin erabiltzeko modukoa eta tamaina egokikoa izan behar du.</p>	<p>Produktuak, inguruneak, programak eta zerbitzuak edonork erabiltzeko moduan eta, ahal izanez gero, egokitzapenen zein diseinu espezializatuen beharrik izan gabe diseinatzean datza. «Diseinu unibertsala» egiteak ez du esan nahi laguntza teknikorik emango ez zaienik horren beharra duen gutxituei.</p>
Dutxa irisgarria		
EKT -SUA 9		
<p>Barra horizontalek aulkitik eserlekura mugitzeko laguntza gisa balio dute, eta bertikalek, berriz, bira eman eta altxatzeko. Horrenbestez, dutxetako eserlekuak izkina batean kokatuta egon behar du, barra horizontalek izkina horretan bertan egon behar dute eta barra bertikalak, berriz, eserlekuaren aurrean, haren ondoko horman eta bizkarretik 60 cm-ra, eserlekutik eutsi ahal izateko.</p>		
Egokia (ingurune eraikia)		
UNE-ISO 21542		
<p>(Ingurune eraikia) xede-erabiltzailearen premiak betetzen dituen diseinuaren, eraikuntzaren, instalazioaren edo kokapenaren ezaugarria.</p>		
Egonlekuak		
VIV/561/2010 Agindua, otsailaren 1ekoa		
<p>Egonlekuak oinezkoen erabilerara xedaturiko zatiak dira, perimetro irekikoak nahiz itxikoak, eta horietan jardura bat edo gehiago gara daitezke (aisialdi-jarduerak, jolasak, merkataritza-jarduerak, paseoak, kirola eta abar). Horietan, pertsonak denbora-tarte jakin bat igaro dezakete, eta diskriminaziozko erabilerarik egiten ez dela bermatu behar da.</p>		
Elkarrizketa zibila		
1/2013 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 29koa	26/2011 Legea, abuztuaren 1ekoa	
<p>Printzipio honen indarrez, desgaitasuna duten pertsonak eta haien familiak ordezkatzen dituzten erakundeek, legeek eta gainerako arau-xedapenek ezarritako baldintzetan, desgaitasuna duten pertsonen esferan garatzen diren politika ofizialen elaborazioan, egikaritzean, jarraipenean eta ebaluazioan parte hartzen dute; haiek bermatuko dute, edonola ere, desgaitasuna duten haurrek haiei dagozkien gai guztiei buruz duten iritzia askatasunez adierazteko eskubidea eta, beren desgaitasunaren eta adinaren arabera, eskubide hori egikaritzeko laguntza egokia jasotzekoa.</p>	<p>Printzipio honen indarrez, desgaitasuna duten pertsonak eta haien familiak ordezkatzen dituzten erakundeek, legeek eta gainerako arau-xedapenek ezarritako baldintzetan, desgaitasuna duten pertsonen esferan garatzen diren politika ofizialen elaborazioan, egikaritzean, jarraipenean eta ebaluazioan parte hartzen dute; haiek bermatuko dute, edonola ere, desgaitasuna duten haurrek haiei dagozkien gai guztiei buruz duten iritzia askatasunez adierazteko eskubidea eta, beren desgaitasunaren eta adinaren arabera, eskubide hori egikaritzeko laguntza egokia jasotzekoa.</p>	

Elkartzea dela-eta diskriminatzea
1/2013 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 29koa
Egoera hau sortzen da pertsona batek edo pertsona hori kide den elkarte batek diskriminaziozko tratua jasotzen duenean, bere desgaitasuna dela-eta beste batekin duen harremanagatik.
Ekintza positiboko neurriak
1/2013 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 29koa
Neurri espezifikokoak dira, desgaitasunaren ondoriozko desabantailak saihestu edo konpentsatzekoak, desgaitasunarekiko pertsonen egitatezko berdintasuna lortzera edo azeleratzera bideratuak eta bizimodu politikoan, ekonomikoan, sozialean, hezkuntzakoan, lanekoan eta kulturakoan erabateko partaidetza lortzera bideratuak.
Entzumena hobetzeko sistema
UNE-ISO 21542
Entzumen-urritasuna duten pertsonen entzuteko gaitasuna handitzeko, mantentzeko edo hobetzeko erabiltzen den ekipoa, produktu-sistema, hardwarea, softwarea edo zerbitzua.
Entzumen-desgaitasunak dituzten pertsonen egokitutako etxebizitza
EKT -SUA 9
Etxebizitza mota horiek txirrina jotzen dutenean argi eta soinu bidez ohartarazteko sistema bat daukate, etxebizitzako toki guztietatik ikus daitekeena, eraikineko eta etxeko atea irekitzeko, baita begitza magnetikoko sistema bat eta eraikineko atea irekitzeko bi norabideko bideo-komunikagailu bat ere.
Entzumen-desgaitasunak dituzten pertsonentzat erreserbatutako plaza
EKT -SUA 9
Indukzio-begitzaren edo egokitutako bestelako gailu baten bidez akustika hobetzeko sistema bat daukan plaza (jarlekua).
Erabilgarritasuna
UNE-ISO 21542
Pertsona guztiek modu erosoan eta seguruan erabili ahal izateko ingurune eraikiaren ezaugarria.
Eremu publiko hiritartuak
VIV/561/2010 Agindua, otsailaren 1ekoa
<ol style="list-style-type: none"> 1. Eremu publiko hiritartuek oinezkoentzako eta ibilgailuentzako bide guztiak hartzen dituzte barne, igarotzekoak nahiz egotekoak, eta jabari publikoaren barne sartzen dira; erabilera publikoa izaten dute, modu iraunkorrean edo aldi baterako. 2. Eremu publiko hiritartu berriak diseinatu, eraiki, mantendu eta kudeatzeko orduan, desgaitasuna duten pertsonen irisgarritasuna eta diskriminaziorik eza bermatzeko oinarritzko baldintzak bete behar dira, agiri tekniko honetan garatzen direnak.


Ergonomia
68/2000 Dekretua, apirilaren 11koa
Pertsona gehienek erosotasun, segurtasun eta eraginkortasun handienarekin erabiltzeko moduko tresnak, makinak eta gailuak sortzeko beharrezkoak diren pertsonari lotutako ezagutza zientifikoen multzoa da.
Etxebizitza birgaitzea
1/2013 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 29koa
Etxebizitza birgaitzea direla joko da, diru-laguntzak eta interesetan diru-laguntza duten maileguak eskuratzeari begira, desgaitasunen bat duten pertsonen eta desgaitasunen batekiko kideak dituzten familiek edo elkarbizitza-unitateek beren etxebizitza ohiko eta iraunkorra irisgarriago bihurtzeko egin beharreko erreformak.
Gaitasuna-ahalmena
UNE-ISO 21542
Giza ezaugarri identifikagarria, berariaz ez bada ere, oinez ibili, entzun, ikusi, ukimenarekin hauteman, dastatu, ulertu eta aitortu ahal izatea.
Garraio Bereziko Zerbitzua GBZ
1544/2007 Errege Dekretua, azaroaren 23koa (garraioa)
Garraio bereziko zerbitzua (GBZ) da garraio-zerbitzu arrunt baten ezaugarri guztiak ez dituen zerbitzua (erregularatasuna, ordutegiak, tarifa komertziala eta ibilbide finkoak), horietako batzuk izan arren.
Garraio-oztopoak
68/2000 Dekretua, apirilaren 11koa
Garraio-oztopoak lurreko, itsasoko, ibaietako edo aireko garraio-unitate partikular edo kolektiboek (distantzia labur, ertain eta luzekoek) ezgaitasun-maila desberdinen aurrean agertzen dituzten eragozpenak dira.
Gizarteratzea
1/2013 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 29koa
Guztion ongizatea eta gizarte-kohesioari begira, gizarteak konpartitutako balioak sustatzea. Desgaitasuna duten pertsona guztiek hezkuntza-, lan- eta kultura-bizitzan eta bizitza politiko, ekonomiko eta sozialean gainerakoen aukerak eta baliabideak izan ditzaten ahalbidetzen du, hala nola bizi-baldintza berdinak.
Gurpil-aulkia
68/2000 Dekretua, apirilaren 11koa
Bere armazoiaren eserlekuz hornituta eta hainbat materialez eginda dagoen ibilgailu mekanikoa, eskuzko trakzioa edo elektrikoa duena eta minusbaliotasun bat duten pertsonen lokomozio-sistema ordezkatzeko duena.

Gurpil-aulkia erabiltzen duten pertsonak	
68/2000 Dekretua, apirilaren 11koa	
Autonomiaz edo beste pertsona batzuen laguntzarekin lekualdatzeko gurpil-aulkia behar duten pertsonak dira.	
Gurpil-aulkien erabiltzaileentzako etxebizitza irisgarria	
EKT -SUA 9	
Jarraian zehaztuko ditugun baldintzak betetzen dituzten etxebizitzak: ikus ICT SUA-9	
Gurpil-aulkien erabiltzaileentzat erreserbatutako plaza	
EKT -SUA 9	
Ondorengo baldintzak betetzen dituzten espazio edo plazak (jarlekuak) dira: Esparruko sarreratik edo irteeratik gertu daude, bai eta biekin komunikatuta ere, ibilbide irisgarri baten bidez.	
Hirigintza-oztopoak	
68/2000 Dekretua, apirilaren 11koa	
Hirigintza-oztopoak, hiri-egiturak eta hiri-altzariak, leku historikoen eta jabari publiko eta pribatuko eraikuntzarik gabeko espazioek ezgaitasun-maila desberdinen aurrean agertzen dituzten eragozpenak dira.	
Hizkuntza	
Desgaitasuna duten pertsonen eskubideen konbentzioa	
Ahozko hizkuntza nahiz zeinu-hizkuntza eta komunikatzeko beste modu batzuk, ahozkoak ez direnak.	
Ibilbide irisgarria	
EKT -SUA 9	1544/2007 Errege Dekretua, azaroaren 23koa (garraioa)
Bi norabideetako erabilera kontuan hartuta ondoren zehaztuko ditugun baldintzak betetzen dituen ibilbidea da: ikus ICT SUA-9.	Ibilbide irisgarri gisa hartuko da hala adierazita dagoen eta desgaitasuna duten pertsonak sartzea ahalbidetzen duena. Ibilbide egingarri gisa hartuko da hala adierazita dagoen eta desgaitasuna duten pertsonen modu seguruan eta puntualan sartu ahal izatea ahalbidetzen duen hura, zabalera libre mugatuagoa duten igarobideetan.
Ibiltariak	
68/2000 Dekretua, apirilaren 11koa	
Ibiltzeko gai izan arren, mugimendu jakin batzuk zailtasunez egiten dituzten pertsonak, bai ibiltzeko material ortoprotesikoa behar dutenak (eskorgak, makuluak eta abar), bai behar ez dutenak biltzen dira talde honetan. Talde honen barruan, ezgaitasun fisikoa duten pertsonak, gutxiegitasun kardiakoa edo arnas gutxiegitasuna duten pertsonak, haurdun dauden emakumeak, karga astunak edo haurrak besotan edo haurkotxean daramatzaten pertsonak, igeltsuztatuta edo eriondo dauden pertsonak, hirugarren adineko pertsonak, ondorio txarrak edo malformazioak dakartzaten gaixotasunak dituzten pertsonak, altuera txikiko pertsonak eta abar barne hartzen dira.	

Igogailu irisgarria			
EKT -SUA 9			
<p>Igogailu mota horrek Pertsonentzako, desgaitasunak dauzkaten pertsonak barne hartuta, igogailuetako irisgarritasunari buruzko UNE EN 81-70:2004 araua betetzen du, baita jarraian zehaztuko ditugun baldintzak ere:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Botoietan braillez eta goi-erliebean idatzitako karaktereak ere egongo dira, kromatikoki kontrastatuta. Igogailu multzoen kasuan, igogailu irisgarriak dei indibiduala/propioa izango du. - Kabinaren neurriek ondorengo taulako baldintzak bete behar dituzte, eraikin motaren arabera. 			
Irisgarritasuna			
68/2000 Dekretua, apirilaren 11koa	UNE-ISO 21542	1/2013 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 29koa	Desgaitasuna duten pertsonen eskubideen konbentzioa
<p>Irisgarritasuna ingurune eraikiaren oinarritzko ezaugarri bat da. Irisgarritasunak ingurune horren berezko gizarte- eta ekonomia-jardueretan parte hartzea ahalbidetzen die pertsonari. Parte hartzeko aukera berdinak bermatzeko, pertsona guztiak aukera izan behar dute –beren adina eta, hala badagokio, ezgaitasuna edozein izanik ere– ingurune eraikiko edozein aldetan sartzeko eta ahalik eta independentziarik handienarekin erabiltzeko.</p>	<p>Eraikinen edo eraikineko zatien ezaugarri horrek horietara iristea, horietan sartzeko edo horietatik irtetea, eta horiek erabiltzea ahalbidetu behar die pertsonari, horien gaitasunak, adina edo sexua direnak direla.</p>	<p>Desgaitasunen bat duten pertsonen eskubidea dute bizimodu beregaina egiteko eta bizitzako alderdi guztietan osoki parte hartzeko. Horretarako, botere publikoek neurri egokiak onartuko dituzte, irisgarritasun unibertsala gainerako pertsonen baldintza-berdintasunean izango dela ziurtatzeko, dela inguru batzuetan eta besteetan behar den irisgarritasun unibertsala, dela prozesuetan, produktu eta zerbitzuetan, garraioetan, informazioan eta komunikazioetan (informazioko eta komunikazioetako sistemak eta teknologiak barne), hedabide sozialetan eta herritarrek erabiltzeko edo herri-erabilerako beste zerbitzu eta instalazio ireki batzuetan behar den irisgarritasun unibertsala.</p> <p>Enpleguaren esparruan, irisgarritasunaren eta diskriminaziorik ezaren oinarritzko baldintzek, zeinak kapitulu honetan aipatzen baitira, aplikazio ordezko eta osagarria izango dute lan-arloko legerian xedatutakoarekiko.</p>	<p>Pertsona desgaituak modu independentean bizi daitezten eta bizitzako arlo guztietan bete-betean parte har dezaten, estatu alderdiek neurri egokiak hartuko dituzte pertsona desgaituei ziurtatzeko eskuragarri izatea, gainerako pertsonen baldintza berdinetan, ingurune fisiko, garraioa, informazioa eta komunikazioak, barnean direla informazioaren eta komunikazioen sistemak eta teknologiak, eta jendaurreko edo erabilera publikoko beste zerbitzu eta instalazio batzuk, hiriguneetan nahiz nekazaritza-guneetan.</p>
Irisgarritasun unibertsala			
1/2013 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 29koa			
<p>Inguru, prozesu, ondasun, produktu eta zerbitzuek, bai eta objektuek, bitartekoez, tresnez eta gailuek ere, baldintza hau bete behar dute pertsona guztiak ulertu, erabili eta praktika ahal dituzten, segurtasunez eta erosotasunez eta ahalik eta era autonomo eta naturalenean. «Diseinu unibertsala edo guztientzako diseinuaren» estrategia eskatzen du, nahiz eta arrazoizko doikuntzak egin ahal zaizkion.</p>			

Irisgarritasunaren eta diskriminaziorik ezaren oinarrizko baldintzak		
1/2013 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 29koa		
<p>Gobernuak arautuko ditu, autonomia-erkidegoei eta toki-erakundeei esleitutako eskumenak gorabehera, irisgarritasunaren eta diskriminaziorik ezaren oinarrizko baldintzak, desgaitasunen batekiko pertsona guztiei aukera berdinak bermatzekoak. Arauketa hori apurka-apurka egingo da denboran, eta apurka-apurkakoa izango da ezarritako betebeharren irismena eta edukia; gainera, 5. artikuluan aipatzen diren arlo eta esparru guztiak hartuko ditu.</p>		
Jazarpena		
1/2013 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 29koa		
<p>Pertsona baten desgaitasuna dela-eta gertatzen den jokabide desiratu gabea, helburutzat edo ondorioztat duena haren duintasunaren kontra jotzea edo inguru larderiako, etsaitasunezko, degradatzaile, umiliagarri edo laidogarri bat sortzea.</p>		
Komun irisgarria		
EKT -SUA 9	VIV/561/2010 Agindua, otsailaren 1ekoa	68/2000 Dekretua, apirilaren 11koa
<p>Komun irisgarria komun arrunt baten barneko kabina baten gisa konfiguratu daiteke. Kasu horretan, komuna eta konketa izan beharko ditu, eta adierazitako \varnothing 1,50 m-ko maniobrarako lekua izan beharko du; bestela, komun independente bat izango da, eta kabinaren baldintza berdinak bete beharko ditu.</p>	<p>Oinezkoen erabilerarako eremuetan komunak modu iraunkorrean nahiz aldi baterako instalatzen direnean, hamarretik edo zatiki bakoitzetik bat, gutxienez, irisgarria izango da.</p>	<p>Eraikuntza-eremuetatik libre isolatutako komun publikoak instalatzen direnean, horiek mugikortasun murriztuko pertsonen modu autonomoan erabiltzeko modukoak izan beharko dute. Elementuak barne hartzen dituztenean, elementu bat gordeko da sexu bakoitzerako, 10 komun edo zatiki bakoitzeko.</p>
Komunikazio-oztopoak		
68/2000 Dekretua, apirilaren 11koa		
<p>Komunikazio-oztopoak, ezgaitasun-maila desberdineko pertsonen ahozko mezuak eta ahozkoak ez direnak ulertu eta jasotzeko eta eskuragarri dauden baliabide teknikoak erabiltzeko dituzten eragozpenak edo zailtasunak dira: ikus 68/2000 Dekretua. Arra</p>		
Kontraste bisuala		
UNE-ISO 21542		
<p>Eraikin bateko bi elementu ikusmenaren bidez bereizteko gaitasuna.</p>		
Laguntza-produktua		
UNE-ISO 21542		
<p>Merkatuan berariaz fabrikatu den edo eskura daitekeen produktua, gabeziak, jarduteko mugak eta parte hartzeko murrizketak prebenitzeko, konpentsatzeko, kontrolatzeko, arintzeko edo neutralizatzeko balio duena.</p>		

Mekanismo irisgarriak	
EKT -SUA 9	
<p>Ondorengo baldintzak betetzen dituztenak dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Aginte- eta kontrol-elementuen kasuan, 80 eta 120 cm arteko altueran kokatuta daudenak, eta korronte- edo seinale-harguneen kasuan, 40 eta 120 cm arteko altueran daudenak. - Zokoarekin bat egiteko distantzia 35 cm-koa da, gutxienez. - Etengailuei eta alarma-ukigailuei erraz eragin dakieke, ukabil itxiarekin, ukalondoarekin eta esku batekin, edo automatikoak dira. - Ingurunearekiko kontraste kromatikoa dute. - Biratu beharreko etengailurik eta palankadun etengailurik ez da onartzen. - Komun irisgarrietako eta aldagela irisgarrietako kabinetan ez da tenporizadoredun argiztapenik onartzen. 	
Minusbaliotasuna	
68/2000 Dekretua, apirilaren 11koa	
<p>Minusbaliotasuna gizabanako jakin batentzat eragozgarria den egoera bat da, urritasun edo ezgaitasun baten ondorioz sortua eta rol normal bat (adinaren, sexuaren eta gizarte- eta kultura-faktoreen arabera) betetzea eragozten duena. (OME, 1981)</p>	
Mugikortasun urriko pertsonak	
68/2000 Dekretua, apirilaren 11koa	
<p>Mugikortasun urriko pertsona (mup), lekualdatzeko posibilitatea aldi baterako edo etengabe mugatua duena da.</p>	
Normalizazioa	
1/2013 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 29koa	
<p>Desgaitasuna duten pertsonen gainerako baldintza berdinetan bizi ahal izatea, eta beste edozein pertsonak eskuragarri dituen lekuetarako, eremuetarako, ondarerako eta zerbitzuetarako sarbidea izatea.</p>	
Oinezkoentzako bide irisgarria	
VIV/561/2010 Agindua, otsailaren 1ekoa	1544/2007 Errege Dekretua, azaroaren 23koa (garraioa)
<p>Oinezkoentzako bide irisgarri gisa hartuko dira diskriminaziorik gabeko erabilera eta pertsona guztien zirkulazio autonomoa eta etengabea bermatzen duten bideak. Bi punturen artean ibilbide bat baino gehiago badaude, eta denak irisgarriak ez badira, beharrezkotzat jotzen diren neurriak gaituko dira oinezkoentzako bide irisgarria diskriminaziozkoa izan ez dadin, haren luzeragatik nahiz pertsona gehien ibiltzen diren eremuetatik kanpo igarotzen direlako.</p>	<p>Aparkalekuetan desgaitasuna duten pertsonentzat erreserbatutako plazak eta erabilera publikoko portuko gainerako azpiegiturak eta instalazioak elkarrekin lotzeko oinezkoentzako bide bat egongo da gutxienez, ahalik eta zuzenena. Honako ezaugarri hauek bete beharko ditu:</p> <p>Bideak zehazteko orduan, mota guztietako oztoporik gabeko igarobide bat dagoela bermatu beharko da, eta haren zabalerak bi gurpil-aulki aldi berean igaro ahal izateko modukoa izan behar du; gainera, egon daitezkeen desnibelak saihestu beharko dira, desgaitasuna duten pertsonen modu seguruan mugitzeko inklinazioa bermatuz.</p>

Oinezkoen erabilerarako eremuak	
VIV/561/2010 Agindua, otsailaren 1ekoa	
Oinezkoen mugimendura edo egonaldira bideratutako eremu publiko hiritartu orori oinezkoen erabilerako eremu deitzen zaio. Erabilera diskriminatzailek egiten ez dela bermatu behar da.	
Ostatu irisgarria	
EKT -SUA 9	
Hoteleko, aterpetzeko, ikasle-egoitzako, turismo-apartamentuko edo antzeko ostatu bateko logela da. Gorpil-aulkien erabiltzaileentzako eta entzumen desgaitasunak dituzten pertsonentzako etxebizitza irisgarrii galdagarriak zaizkien ezaugarrietatik aplikagarriak zaizkion guztiak betetzen ditu, eta alarma-sistema bat izango du, barrualdeko toki guztietatik –komuna barne– ikusteko modukoak diren seinaleak igortzeko.	
Sentsorialak	
68/2000 Dekretua, apirilaren 11koa	
Sentimenari, ikusmenari, entzumenari eta/edo komunikazioari lotutako gaitasunak mugatuta dituzten pertsonak barne hartzen dira hemen.	
SIA	
1544/2007 Errege Dekretua, azaroaren 23koa (garraioa) - UNE 41501:2002	
SIA. Irisgarritasunaren nazioarteko sinboloa. 	
Urritasun kognitiboa	
UNE-ISO 21542	
Garuneko gune zehatz bateko edo gehiagotako lesioarekin edo degenerazioarekin lotuta egon daitekeen funtzio pneuropsikologikorik eza.	
Urritasuna	
68/2000 Dekretua, apirilaren 11koa	UNE-ISO 21542
Egitura edo funtzio psikologiko, fisiologiko edo anatomiko baten galera edo anormaltasun oro da urritasuna. (OME, 1981).	Gorputzeko funtzio edo egituretako mugak, hala nola desbideratze esanguratsua edo galera; denboraldi baterako (lesio baten eraginez, adibidez) edo iraunkorra izan daiteke, arina edo gogorra, eta aldatu egin daiteke denbora igaro ahala (zahartzeak eragindako narriaduraren ondorioz batik bat).
Zeharkako diskriminazioa	
1/2013 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 29koa	
Egoera hau sortzen da pertsona bati, bere desgaitasuna dela eta, desabantaila jakin bat sortu ahal zaionean beste pertsona baten aldean, lege- edo erregelamendu-xedapen baten bidez, klausula hitzartu edo kontratuzko baten bidez, banakako hitzarmen baten bidez, alde bakarraren erabaki baten bidez edo irizpide edo praktika baten bidez, edo ingurune, produktu edo zerbitzu baten bidez, nahiz eta itxura batean neutroak izan, non eta, horiek guztiak, objektiboki, ez diren bidezko helburu bati erantzuteko, eta non eta helburu hori lortzeko bitartekoak ez diren egokiak eta beharrezkoak.	

Zuzeneko diskriminazioa

1/2013 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 29koa

Egoera bat da, desgaitasuna duen pertsona bati, bere desgaitasuna dela eta, antzeko egoeran dagoen beste bati baino laguntasun gutxiago ematen zaionean sortzen dena.

(wayfinding) Orientazio espazialeko sistemak

UNE-ISO 21542

Informazio egokia eskaintzen duten sistemak, pertsonen ingurune eraikian zehar ibiltzea laguntzen dietenak, norako jakin batera iritsi arte.

AZTERTUTAKO ITURRIAK:

1/2013 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 29koa, desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren testu bategina onartzen duena.

68/2000 DEKRETUA, apirilaren 11koa, hiri-inguruneen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazioko sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzko arau teknikoak onartzen dituena.

117/2018 Dekretua, uztailaren 24koa, Euskal Autonomia Erkidegoko eraikinen ikuskapen teknikoarena.

EKT – SUA 9 Eraikuntzako Kode Teknikoa.

Desgaitasuna duten pertsonen eskubideen konbentzioa

26/2011 Legea, abuztuaren 1ekoa, Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Nazioarteko Konbentziora moldatzeko arauak ezartzen dituena.

VIV/561/2010 Agindua, otsailaren 1ekoa, espazio publiko urbanizatuak irisgarriak egiteko eta erabili ahal izateko irisgarritasuneko eta ez-diskriminazioko oinarriko baldintzen dokumentu teknikoak garatzen duena.

SI (EKT) - SI3.9 - Desgaitasuna duten pertsonen ebakuazioa.

1544/2007 Errege Dekretua, azaroaren 23koa, ezinduek garraiobideetan sartzeko eta erabiltzeko irisgarritasunaren eta diskriminaziorik ezaren baldintzak arautzen dituena.

UNE-ISO 21542 ARAUA

UNE 41501:2002 ARAUA

2019/02/27